

MIRENEN BERTSIOA

Bazen behin, neskato bat Miren izenekoa, Miren fisikoki neska altu eta argala zen, hankak nahiko luzeak zituen eta ilegorria zen. Neskak ilegorri ondulatua zuen eta leporaino iristen zitzaion. Mirenek begi berde dirdiratsuak zituen eta aurpegian orezta pila bat zituen. Psikikoki, Miren oso neska jakintsua zen, batzuetan oso ezatsegina ere bazen, eta burugogor samarra ere bai, baina hala ere Miren bihotz oneko neska zen.

Miren Estatu Batuetan jaioakoa zen, baina bi urterekin Australiara joan zen bizitzera, neskaren gurasoak bertakoak ziren eta.

Neskatoak ez zuen lanbiderik, izan ere, oraindik ikasten ari zen. Baina Mirenen ametsa, psikologo eta psikoterapeuta izatea zen.

Mireneri gauza ezberdinak gustatzen zitzaizkion eta gustoko zituen hauek nahiko bereziak ziren: jaki ezberdinak dastatzea (txinatarrak), edari energetikoak edatea, oporretara joatea... Baina neskatoari gehien gustatzen zitzaion gauza skatean ibiltzea zen, beti eramaten zuen bere skatea leku guztietara. Eta horrekin lotuta snowboard egitea ere gustatzen zitzaion, skatean ibiltzearen antzekoa zelako, eta horregatik bidaiatzen zuten gehienetan elurretara izaten zen.

Neskak marradun jertse bat janzten zuen, marra berde ilun eta zuriekin, bakero urdin praka-motzak erabiltzen zituen eta gerriko bat gerrian. Mirenek Converse zapatilak erabiltzen zituen ia beti.

Egun batean, Miren ikastolara zihoan bere lagun Karlarekin (Karla Mirenen lagunik onena zen), betiko moduan, eta biak irribarretsu zeuden, izan ere, ostirala zen. Ikastolako patioa zapaltzean, irribarre eder hori, ahotik desagertu zitzaion Mireni, patioko eserleku batean, Mirenen berdina zen neskatila bat zegoelako.

Neskatoak ezin zuen sinetsi hori pasatzen ari zenik, eta bere lagun Karla ere harrituta gelditu zen. Bietako inork ez zekien nola erreakzionatu, ez zirelako inoiz horrelako egoera batean egon. Halako batean txirrinak jo zuen eta gelara sartu ziren bizkor batean. Denbora pasatu ostean Mirenen buruak geroz eta bira gehiago ematen zituen, ez zuen ulertzen zer pasatzen ari zen, errekreora atera ziren eta Miren, estresak jota zegoela zirudien, nola izan zitekeen bere bertsio bat existitzea?, galdetzen zion bere buruari.

Ikastolatik irten ostean, Miren Karlarekin batera etxera abiatu zen, orduantxe bertan ikusi zuen berriz bere bertsioa.

Mirenek bere bertsioa ikusi orduko, ohartu zen egoera okerrera zihoala, bertsio hura, Miren izango balitz moduan gehiegikeriak egiten ari zelako, gainera Mirenen bertsioa, Miren bezain bordea zen, Miren baino bordeagoa ere bazen eta Mirenen lagunei astakeriak esaten ibili zen. Miren beldur zen bertsio haren erruz lagunak galtzea.

Miren bere etxera joan zen, ezatsegina zenez, Karlari kasurik egin gabe joan zen.

Etxean zegoela, Mirenek bere bertsioa botatzeko planen zerrenda bat egiten hasi zen, geroz eta ideia gehiago etortzen zitzaizkion burura. Azkenean denera hamazortzi ideia bururatu zitzaizkion Mireni, baina lehenengo ideia martxan jartzera zihoanean planen zerrenda horrek ez zuela funtzionatuko konturatu zen.

Miren triste zegoen, behin eta berriz lagun gabe geldituko zela pentsatzen eta orduan triste zegoen gehienetan egiten zuena egitera joan zen, skate parkera joan zen skatean ibiltzera. Horrek pentsatzen eta lasaitzen laguntzen zion eta.

Miren neska argia zen eta beti zituen baliagarriak izaten ziren ideiak baina egun horretan ez. Hiru ordu laurden eman zituen skate parkean alde batera eta bestera patinatzen eta halako batean, Mirenek sakon pentsatzea erabaki zuen ideia bat bururatu zitzaion.

Miren konturatu zen bere bertsioaren jarrera berearen berdina zela baina handituta eta bere ezatsegin momentuak eta abar, zuzendu egin beharko zituela bertsioa desagerrarazteko.

Orduan izan zen, skatearekin ziztu bizian lagunengana joan eta barkamena eskatu zienean bere lagunei.

Barkamena eskatu bezain pronto, bertsioa desagertu, eta Miren esnatu egin zen. Orduan ohartu zen dena amets bat izan zela, baina handik aurrera ez zen berriro hain ezatsegina izan.

Mari Anne

Ezizena